




BIM

Antsoáin Ansoáin

2019
Urria / Octubre
nº 17.zka

Antsoaingo Jaiak Fiestas de Ansoáin



Argitaratzailea: Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Patricia Abad, Patxi Leuza, M^a Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Patricia Abad, Patxi Leuza, M^a Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2019ko abendua – Próximo BIM: diciembre 2019)

LIBURUTEGIAREN ORDUTEGI BERRIA

Irailaren 16an, Antsoaingo Udal Liburutegiko ordutegia aldatu zen, eta, egun horretatik hasi eta ikasturteak dirauen bitartean, 14:00etatik 20:00etara egonen da zabalik liburutegia. Nafarroako Gobernuak aldaketa batzuk onartu zituen orain dela gutxi Nafarroako Liburutegien Sarean zerbitzua ematen duten langileentzat; izan ere, Nafarroako Gobernuak dukeen zuzenean zerbitzu horietako langileria.

Sarearen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, sindikatuek eskaera egin zuten, liburutegietako arduradunen lanaldia egokitzeko, Nafarroako Gobernuaren beste langileek oro har dituzten lan baldintzak erreferentzia hartuta. Horren ondoren, lanaldi hori egokitzeko prozedura abian jarri zen, eta eskaera horretatik eratorri dira ordutegi malguagoak eta bateragarritasunaren aldeko neurriak. Proposamen sindikal hori Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Orokorraren bidez negoziatu da Administrazioarekin, eta ekarri dituen aldaketek onespenez irailaren 16an jarri ziren indarrean.

Aldaketa horietan bi ikuspegi hartu dira aintzat. Batetik, herritarrei ematen zaien liburutegi zerbitzua da lehenatsuneko; zerbitzu hori emateko zein baliabide dauden kontuan izan behar da, eta herritarren bizimoduak eta kultura zerbitzuen erabileran gertatzen ari diren aldaketara egokitu behar du zerbitzu horrek. Bestetik, goan hartu behar dira sektore publikoan lan egiten duten hainbat langileentzat funtsezkoak diren zenbait arlo, hala nola, bateragarritasuna eta norberaren zein familia bizitzaren hobekuntza.

Horrek ekarri du jendaurreko ordutegia aurreratzea: ordu bat lehenago irekiko da eta ordu bat lehenago itxi, liburutegien arduradunei Nafarroako Gobernuaren gainerako langileek oro har duten ordutegi malgutasuna aplikatu ahal izateko.

Antsoaingo Udalak liburutegiarekiko duen erantzukizuna eraikinare funtzionamenduari lotua dago; hau da, lokala jarri behar du, eta mantentze zein garbiketa lanaz arduratu. Aldiz, liburutegiaren jendaurreko ordutegia eta zerbitzua ematen duten langileen lan baldintzak Nafarroako Gobernuari dagozkie.

NUEVO HORARIO DE LA BIBLIOTECA

Desde el lunes 16 de septiembre, la Biblioteca Municipal de Ansoáin ha tenido una modificación de su horario de apertura, que pasa a ser de 2 a 8 de la tarde durante el curso escolar. Esto se debe a los cambios aprobados recientemente por el Gobierno de Navarra para el personal que presta servicio en toda la Red de Bibliotecas Públicas de Navarra, personal que depende directamente del citado estamento.

Según informan desde la Dirección de la Red, a raíz de una propuesta sindical se inició un procedimiento para adaptar la jornada laboral del personal encargado de bibliotecas a las condiciones que disfrutan, con carácter general, el resto de empleados y empleadas del Gobierno de Navarra. Estos cambios se traducen en la aplicación de flexibilidad horaria y medidas en favor de la conciliación. La propuesta sindical, negociada con la Administración a través de la Dirección General de Función Pública se ha traducido en la aprobación de una serie de cambios que han tenido efecto a partir del lunes 16 de septiembre.

Estos cambios se plantean desde la doble óptica de que la apertura de una biblioteca es el primer servicio que se presta a la ciudadanía y que, a tenor de los recursos disponibles, se ha de adaptar a los cambios en los modos de vida y usos de los servicios culturales. Y es a su vez, el marco de trabajo de un conjunto de trabajadoras y trabajadores del sector público para quienes se consideran temas tan trascendentales como la conciliación y mejora de la vida personal y familiar.

Por ello, se ha producido un adelanto de la hora de apertura al público y de la hora de cierre de la biblioteca, con el fin de poder aplicar al personal encargado de la biblioteca la flexibilidad horaria que disfrutan, con carácter general, el resto de empleados y empleadas del Gobierno de Navarra.

La responsabilidad del Ayuntamiento de Ansoáin sobre la biblioteca se ciñe a la aportación del local, su correcto mantenimiento y limpieza, mientras que el horario de la misma y las condiciones laborales del personal encargado corresponden al Gobierno de Navarra.




ZEBRABIDE BERRIAK EGIN ETA ARTZAINSA JAINKOTIARRA ETA LAPURBIDEREN ARTEKO BIDEGURUTZEA BERRITU DIRA

Uztailaren bukatu ziren zebra bide berriak eta Artzaintsa Jainkotiarra eta Lapurbideren arteko bidegurutzeari berritzea lanak, 80.000 euro inguruko kostuarekin. Gure herriko hainbat tokitan oinezkoen segurtasuna hobetzeko helburuarekin egin dira lan horiek eta, bai Harrobieta kaletik zein dorreetatik, Soroko plazari jarraipen naturala eta segurua eman zaio; izan ere, lehen, zaborrontziek eta ibilgailuek plazako irteerak oztopatzen zituzten. Aldi berean, proiektu honi esker, ingurune zabalgoa eta seguruagoa lortu da Artzaintsa Jainkotiarretik Lapurbide kalearen sarrera doan pasabidean ibili ohi den jendearentzat: zebra bideak berritu dira, argiztapen hobea jarri zaio eta espaloari eman zaion zabaltasunarekin, toki handiagoa duen basalandarez apainduta plaza txiki bat geratu da.

NUEVOS PASOS DE CEBRA Y REMODELACIÓN DEL CRUCE ENTRE DIVINA PASTORA Y LAPURBIDE

Con un coste cercano a los 80.000 euros, en julio finalizaba la construcción de varios nuevos pasos de cebra y la remodelación del cruce entre Divina Pastora y Lapurbide. La actuación, encaminada a la mejora de la seguridad peatonal en diferentes puntos de nuestro pueblo, ha permitido también que la plaza Soroko tenga continuidad natural y segura tanto desde las torres como desde la calle Canteras, ya que ambas salidas estaban antes ocupadas por contenedores y vehículos. De la misma manera, el proyecto ha permitido contar con un espacio más amplio y seguro para las personas en el entorno de entrada a la calle Lapurbide desde Divina Pastora, con la remodelación de los pasos de cebra existentes, la mejora de su iluminación y la ampliación de la acera, que ahora configura una plazoleta más amplia decorada con plantas de ambiente silvestre.



Deskargatu aplikazio berria festetarako. Antsoaingo Udalaren doako aplikazioa da, eta bertan ikusiko duzu festetako egitaraua, nahi duzun unean eta tokian; eta egitarauri aldaketaren bat eginez gero, berehalako alerta jasoko duzu.

APP Store eta Play Store-n eskuragarri

Descarga en tu móvil la nueva aplicación gratuita del Ayuntamiento de Ansoáin y accede al programa de fiestas en cualquier momento y lugar. Recibirás alertas instantáneas sobre cualquier cambio de última hora en el horario o ubicación de los actos programados.

Disponible en APP Store y Play Store

EUSKARA ZERBITZUA

FILM LABURREN TAILERRA

DBH 3 eta 4ko neska-mutilak ariko dira urriko asteazkenetan, Harrobi gaztelekuan, Katubirekin. Film laburren oinarritzko osagaiak ikusiko dituzte eta istorioak osatu, lokalizazioez zein grabazioez arduratuko dira eta postprodukzioaren parte bat ere ikusiko dute azaroan.

KOMIKI TAILERRA

Belatz komikilari ezagunarekin buruz buru ariko dira DBH 1 eta 2ko gaztetxoak, urriaren 29an, azaroaren 5ean eta 12an, 16:30-18:30era; Harrobi gaztelekuan, komikiari buruzko gauza berriak ikusteko. Izen-ematea: urriaren 14tik 16ra, euskera@ansoain.es helbidean (doakoa da). Izen-abizenak, jaiotza urtea, ikasmaila, eta gurasoen edo arduradunen telefono zenbakia eta mail helbidea bidali behar dira.

BERTSO ESKOLA ANTSOAINEN

Urritik ekainera izanen da, DBH 1 eta 4 bitarteko neska-mutilentzat. Astelehenetan 17:00-18:00etara bilduko dira, Txoko Gorri. Informazio gehiago, Nafarroako Bertsozale Elkartearen (nafarroa@bertsozale.eus) edo Udal Euskara Zerbitzuan (euskera@ansoain.es).

LARUNBLAI IZEN-EMATEA

LHko 5. eta 6. mailentzat; eta, aurtén, 3. eta 4. mailarentzat ere bai. Izen-ematea: urriak 23-30. larunblai@topagunea.eus edo 948 330868 (10:00-14:00etara).



SERVICIO DE EUSKERA

TALLER DE MICROFILMS

Participarán chicas y chicos de 3º a 4º de la ESO los miércoles de octubre en Harrobi con Katubi. Verán los componentes básicos de los microfilms, crearán historias, se ocuparán de las localizaciones así como de las grabaciones y también verán parte de la postproducción en noviembre.

TALLER DE COMICS

Las chicas y chicos de 1º y 2º de la ESO y el conocido creador de comics Belatz verán una nueva forma de tratar el comic el 29 de octubre, el 5 y el 12 de noviembre, de 16:30 a 18:30 h, en la Casa de la Juventud Harrobi. Inscripción (gratuita): 14-16 de octubre en euskera@ansoain.es, facilitando nombre y apellidos, año de nacimiento y curso. También se debe facilitar teléfono así como el mail de responsables legales.

ESCUELA DE BERTSOLARIS EN ANSOÁIN

De octubre a junio, para chicas y chicos de 1º a 4º de la ESO. Se reunirán los lunes en Txoko Gorri de 17:00 a 18:00 h. Más información en Nafarroako Bertsozale Elkarte (nafarroa@bertsozale.eus) o el Servicio Municipal de Euskera (euskera@ansoain.es).

INSCRIPCIÓN LARUNBLAI

Para 5º y 6º de EP, y este año también para 3º y 4º. Inscripción: 23-30 de octubre en larunblai@topagunea.eus o 948 330868 (10:00-14:00 h).

EUSKARA ZERBITZUA

MINTZAKIDE HELDUENTZAT, ETA PARKELAGUN GURASO ETA 0-5 URTEKO HAURRENTZAT

Urrian izanen dira mintzapraktika egiteko 2 programa hauen izen-emateak.

Aurtén, Parkelagun aldaera eskainiko du Udal Euskara Zerbitzuak. Helburu du gurasoak 0-5 urte bitarteko umeekin elkartzea, euskaraz hitz egiteko guneak eratzeak. Astean behin elkartuko dira parkean edo eskolako atarian, eta, hilabetean behin, dinamizatzailerik baten bisita izanen dute (eguraldi txarrekin, Loza kalean izanen da, ludoteka zen tokian; edo Mendikalen).

Parkelagunen argibideak eta izen-ematea, Udal Euskara Zerbitzuan (euskera@ansoain.es), eta Mintzakide irunerrikomintzakide.org atarian.

TREBAKUNTZA ANTSOAINO ZERBITZUETARAKO

Antsoaindar askok euskaraz egiten du eta saltokietan ere erabili nahi dutenez, trebakuntza honen bidez, Antsoaingo jendaurreko zerbitzuei oinarritzko edukia erakutsiko zaizkie. Ikastaro praktikoa izanen da, kortesiazko eta eguneroko formula sinpleak ikasteko; eta, horrekin batera, saltokietako kartelak ele bieran jarriko dira. Urriaren 1etik azaroaren 22ra izanen da, 15:00-16:30era, Gizartetxean.



SERVICIO DE EUSKERA

MINTZAKIDE PARA MAYORES, Y PARKELAGUN PARA MADRES Y PADRES CON PEQUES DE 0-5 AÑOS

Serán en octubre las inscripciones de estos dos programas para practicar euskera.

Este año, el Servicio de Euskera ofrecerá Parkelagun. Tiene como objetivo reunir a madres, padres, y criaturas de 0-5 años para que tengan espacios en los que poder hablar euskera.

Lo harán una vez a la semana y una vez al mes recibirán la visita de un dinamizador (con mal tiempo, será

en el centro Cultural de calle Loza,

en la antigua ludoteca; o en Mendikale).

Más información e inscripciones de Parkelagun en el Servicio de Euskera (euskera@ansoain.es), y Mintzakide en irunerrikomintzakide.org.

FORMACIÓN PARA LOS SERVICIOS DE ANSOÁIN

Muchos y muchas antsoaindarras hablan euskera y les gustaría utilizarlo también en los establecimientos. Mediante esta formación, se enseñarán contenidos básicos a servicios de Ansoáin con atención al cliente. Se trata de un curso práctico que enseñará fórmulas de cortesía así como cuestiones sencillas del día a día. También se creará cartelería bilingüe. Será del 1 de octubre al 22 de noviembre, de 15:00 a 16:30 h. en el Centro Cívico.

ANTSOAINGO HIRUGARREN TOKIKO EKINTZA PLANA

...edo, beste hitz batzuekin esanda, denon artean proposatu eta datozen urteotan garatuko diren proiektuen zerrenda. Proiektu horien bidez, gure herria bizitzeko toki hobea izanen da, arlo sozialari, ekonomikoari eta ingurumenari... dagokionez; hau da, Tokiko 21 Agendak biltzen duen ikuspegi osoari dagokionez.

Proiektu horiek gauzatzeko helburuarekin, gaur egungo Ansoainen diagnostikoa egin dugu, denekin laster partekatuko dugun "argazki" bat; eta, diagnostiko horrekin, aurrean ditugun erronkak ikusi ahal izanen ditugu.

Lan hori herriko hainbat entitatekin elkarlanean osatu da, esparru guztietako datu asko bilduz: ekonomiaren arloak, sozialak, energiari dagozkionak... Elkarlan horren adibide izan da

ADEMNArekin egindako lana (Esklerosi Anizkoitzaren Nafarroako Elkarte): herriko zebrabideetan gurgildun aulkian ibiltzeko dauden arazoak hauteman dira, irudian ikus dezakezuen bezala.

Aurreko udal aldizkarian adierazi genuen aparteko aipamena merezi dutela klima aldaketak ekarriko dituen eronkek: egokitzeko ahalegina eskatuko digute, eta, batez ere, mentalitate aldaketa eta kultura berri bat eratzea.

Helburu horiek bideratzeko, denok gonbidatuta zaudete Antsoaingo 21 Tokiko Agendaren Parte-hartze Forora. Diagnostikoaren aurkezpen praktikoa egin ondoren, Tokiko Ekintza Planaren zirriborro bat proposatuko dugu, bertan bildutako alderdiei buruzko mahai-ingurua egiteko, adostutako proiektu berriak gehitzeko eta presa handiena dutenei lehentasuna emateko edo denontzat mesedegarrienak direnak lehenesteko.

Zatoz urriaren 22an, 18:00etan, Gizartetxera. Tarte interesgarria pasako dugu informazioa, solasaldia eta ideiak partekatuz. Zeuk erabaki dezakezu zeure herriaren etorkizuna, zure bizilagunekin batera.



AL21

III PLAN DE ACCIÓN LOCAL DE ANSOÁIN

...o en otras palabras, la lista de proyectos que entre todas y todos proponemos y queremos llevar a cabo en los próximos años, para hacer de nuestro pueblo un lugar mejor donde vivir desde el punto de vista social, económico y medioambiental...o lo que es lo mismo, la Agenda Local 21.

Con este fin, ya hemos realizado un diagnóstico del Ansoáin actual; "una foto" que en breve compartiremos con toda la ciudadanía y que nos va a servir de base para plantearnos todos los retos que tenemos por delante.

Este trabajo se ha realizado de forma participativa con numerosas entidades de nuestro pueblo, recabando numerosos datos de interés de todos los ámbitos: económicos, sociales, energéticos... Un ejemplo de esta colaboración ha sido la participación de ADEMNA (Asociación de Esclerosis Múltiple de Navarra), en la detección de los problemas de movilidad de las personas en silla de ruedas al transitar los pasos de cebra y de la que os ponemos una imagen.

Como ya os adelantamos en el BIM anterior, menciono aparte merecen los nuevos retos que va a suponer el cambio climático y que nos van a exigir un gran esfuerzo de adaptación, pero sobre todo, un cambio de mentalidad, una nueva cultura.

Con todos estos objetivos, estáis todas y todos invitados al Foro de Participación de la Agenda Local 21 de Ansoáin, donde de una forma práctica os presentaremos el diagnóstico del pueblo y os propondremos un borrador del Plan de Acción Local para poder debatirlo, añadir nuevos proyectos consensuados y priorizar aquellos más urgentes o que reviertan un mayor beneficio al bien común.

Ven el próximo martes 22 de octubre, a las 18:00 h de la tarde al Centro Cívico. Pasaremos un rato muy interesante compartiendo información, debate e ideas. Tú puedes decidir el futuro de tu pueblo junto con tus vecinos y vecinas.

BERDINTASUN ZERBITZUA

Orain arte Antsoaingo Udaleko berdintasun teknikaria izan dena, Eva Istúriz García, Berdintasunerako Nafarroako Institutuko zuzendari kudeatzaile izendatu dute duela gutxi.

Hainbat legegintzalditan, Udaleko politikariekin aritu da Antsoaingo berdintasun teknikari bezala zituen ardurak betetzen, Antsoaingo Bategarritasun Ituna sortzeko, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Protokoloa eratzeko, Berdintasunerako Ordenantza berria egiteko, hainbat kanpaina eta programa gauzatzeko, desberdintasunaren errealitatearen inguruan trebatzeko eta sentibilizatzeko eta udalaren dinamikan zeharkako genero ikuspegia txertatzeko.

Egindako lana eskertzeaz gain, zortetik onena opa diogu bere eginkizun berrian.

SERVICIO DE IGUALDAD

Recientemente, la hasta ahora técnica de igualdad del Ayuntamiento de Ansoáin, Eva Istúriz García, ha sido nombrada nueva directora gerente del Instituto Navarro para la Igualdad.

Desde su responsabilidad como técnica de igualdad de Ansoáin a lo largo de diferentes legislaturas, Eva Istúriz ha trabajado junto al personal político en la creación del Pacto de Conciliación de Ansoáin, el Protocolo Contra la Violencia Hacia las Mujeres, la nueva Ordenanza de Igualdad, campañas y programas, en la formación y sensibilización sobre la realidad de la desigualdad y en la introducción de la perspectiva de género, de forma transversal, en las dinámicas municipales.

Además de agradecer su labor, le deseamos la mejor de las suertes en su nuevo cometido.



HARROBI GAZTELEKUA

Kaixo Antsoain!

Hemen gaude berriz ere, uda pasa ondoren ikasturteari hasiera emateko gogoz!!!

Oraingoan, Gaztehandiri emanen diogu hasiera eta Gaztetxikirekin jarraituko dugu, jakina. Gaztehandi programa Gaztetxiki bukatzen duten gazteekin osatuko dugu, eta, plaza librean geratuz gero, izen-emate epea irekiko da. Gaztetxikiren izen-emate epea laster zabalduko dugu. Adi egon!

Bestetik, aurtien begirale komunitarioen kanpaina martxan jarriko dugu. 15 urte baino gehiago baldin badituzu eta Harrobik egiten dituen ekintzetan interesa baduzu, hemendik pasa zaitez eta zer egiten dugun kontatuko dizugu!

Harrobin zain gaituzu!



CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

¡Hola Ansoáin!

¡Aquí estamos de nuevo, con ganas de darle comienzo al nuevo curso!

Este año continuaremos con Gaztetxiki y empezaremos con Gaztehandi. El programa Gaztehandi estará formado por las personas que participaron el anterior curso en Gaztetxiki. En el caso de haber plazas libre abriremos la inscripción para participar y las fechas para apuntarse a Gaztetxiki se abrirán enseguida. ¡Estad atentas!

Por otro lado, deciros que también pondremos en marcha la campaña para ser monitor/a comunitario/a. Si tienes más de 15

años y te interesan las dinámicas que se hacen en Harrobi, ¡pásate por aquí y te lo contaremos!

¡Te esperamos en Harrobi!



Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain

EZKABA IKASTETXE PUBLIKOAK

Udaletxeak aurrera eramandako aurrekontu parte-hartzaileetan, gure eskolak eta bertako Guraso Elkarteak aurkeztutako proiektua irabazle suertatu zen. Lehenik eta behin, gure proiektua bozkatu duzuen guztioi, Antsoaingo herriari eta proiektua gauzatu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Datorren ikasturtean gure eremuak aberastuko ditugu proiektu honek emanen dizkigun aukerekin: hareaz, enborrez eta harriz betetako eremu berria, egurrezko etxetoak, arbelak, eszenatokia, jaima, lurrezko mendixka, motrizitate lantzeko gunea... Horretaz guztiaz baliatuko gara, gure ikasleen jolas-tokia inklusiboagoa, naturalagoa eta jasangarriagoa izan dadin. Berriz ere, mila esker.



ain y a las personas que han participado en la creación de este proyecto.

El próximo curso enriqueceremos nuestros espacios con las posibilidades que este proyecto nos brinda: una zona de arena, ramas y piedras, casas de madera, pizarras, escenario, jaima, monte de tierra, zona para trabajar la psicomotricidad... Con todas estas mejoras

dispondremos de un patio más inclusivo, mas natural y más sostenible. Otra vez más, gracias.



HARRIARI HAZI ETA HEZI



HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

IRAKURKETA KLUBA

Urritik maiatzera
19:00 h (EUSKARAZ)
20:00 h (GAZTELANIAZ)
Liburutegia

Hileko azken astearteetan (EUSKARAZ), datorren azaroan izan ezik: azaroan, 19an izanen da, asteartearekin, eta Jon Arretxe idazlearekin solasaldia izanen dugu *Ez erran deus* liburuaren inguruan.

Hileko azken ostegunetan (GAZTELANIAZ)

Irakurketa klub batean, garai berean liburu bera irakurtzen ari den jendea elkartzen da. Bakoitzak bere etxean irakurtzen du, eta hilabeteko egun eta ordu zehatz batean, dinamizatzaile batekin elkartzen dira, liburuaren komentatzeko. Animatu eta izena eman liburutegian.

CLUB DE LECTURA

De octubre a mayo
19:00 h (EUSKERA)
20:00 h (CASTELLANO)
Biblioteca

Último martes de cada mes (EUSKERA), salvo el próximo noviembre que será el martes 19. Contaremos con la presencia del escritor Jon Arretxe para comentar su libro *Ez erran deus*.

Último jueves de cada mes (CASTELLANO)

En el club de la lectura, se junta la gente que en este mismo momento está leyendo un mismo libro. Cada uno lo lee en su casa, y un día al mes a una hora concreta, se juntan en la biblioteca con un dinamizador para comentarlo. Animate y apúntate en la biblioteca.



KOLEKTIBOAK / COLECTIVOS

Kaixo!!! Jakingo duzuenez, urte hau oso berezia da guretzat. 2009an hasitako ibilbide hau irailaren 7an, X. urteurrenarekin bukatu da; azkeneko edizioa izanen da.

Arnasa hartzeko momentua iritsi zaigu, horrelako jaialdi bat antolatzeak –kalitatekoa eta doakoa– lan eta denbora asko eskatzen baitu. Gelditzeko ordua da, atsedena hartu eta arnasa hartzeko; eta, agian, aurrerago, gogorik eta indarririk izanez gero, berrartzeko.

Atzera begiratzen dugu gure lanaren emaitza ikusteko, eta, egia esanda, oso harro gaude lortutakoaz eta jaio ginen garaiko helburua guztiz betea ikusteaz: punta-puntako taldeen kontzertuak antolatu ditugu; talde nazional onenari, Barrikadari, omenaldia egin diogu; gure ekimenari esker, kale bati talde horren izena eman zitzaion etab.

Ez ditugu ahaztu nahi Antsoaingo kolektibo herritarrak, lehenengo momentutik lagundu dutenak eta ezta kanpotik etortzen diren pertsona guztiak ere. Eskerrik asko.

Antsoaingo Udalari ere, ikur batekoari zein beste koari, babesa eman izana eskertu nahi diogu: eskerrik asko.

Eskerrik asko edizio guztietan parte hartu duten musika taldeei ere, jaialdi honen filosofia ulertzeagatik. Eskerrik asko.

Azkenik, urtero kontzertu bakoitzean eztarria utzi duzuen guztioi, eskerrik asko.

Eskerrik asko guztioi. Ez adiorik



Kaixo!!! Cómo sabréis este año es muy especial para quienes organizamos Arrikurock. Allí por el 2009 empezó esta andadura que el próximo 7 de septiembre culminó con el X aniversario, y último.

Nos tomamos un respiro. Organizar un evento de estas características –de

calidad y gratuito– conlleva muchísimo trabajo y tiempo. Es hora de parar, tomarnos un descanso, coger aire y quizás, más adelante, si hay ganas y fuerzas, retomarlo.

Miramos atrás para ver el fruto de nuestro trabajo, y la verdad, nos sentimos muy orgullosos de ver lo conseguido y el objetivo con el que nacimos más que cumplido: conciertos de bandas punteras; el homenaje a la mejor banda nacional de todos los tiempos, a Barricada; que a iniciativa nuestra se le otorgó el nombre de una calle a estos etc.

No queremos olvidarnos de todos los colectivos populares de Ansoáin que desde el primer minuto han arrimado el hombro, al igual que muchas personas que acuden desde fuera para ayudarnos. Gracias.

Tampoco del Ayuntamiento de Ansoáin que, de un signo u otro, nos ha apoyado. Gracias.

Gracias también a todas las bandas que han participado en todas las ediciones, gracias por entender la filosofía de este festival. Gracias.

Por último, gracias a quienes que año tras año os habéis dejado la garganta en cada concierto.

Muchas gracias a todas y a todos. Hasta siempre



ERAKUSKETA - EXPOSICIÓN

URRIAREN 1^{TIK} 16^{RA}
DEL 1 AL 16 DE OCTUBRE

Idakiko Sarrera
Hall de Idaki

MANCOMUNIDAD SERVICIOS SOCIALES



ARTISTA GAZTEENTZAT DROGEN KONTSUMOARI BURUZKO PREBENTZIO-KANPAINARAKO KARTELGINTZA TAILERREKO LANAK

Antsoaingo gazteek egin dituzten lanak. Egileak 11 eta 15 urte arteko 5 neska eta 3 mutil izan dira.

TRABAJOS DEL TALLER DE CARTELERÍA JOVENES ARTISTAS. CAMPAÑA PREVENTIVA DE CONSUMO DE DROGAS

Trabajos realizados por jóvenes de Ansoain. Los jóvenes autores han sido 5 chicas y 3 chicos con edades comprendidas entre los 11 y los 15 años.

DOAKO SARRERA - ENTRADA LIBRE

KONTZERTUA - CONCIERTO

LARUNBATA 5^S SÁBADO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
20:00 h. (60 min)

Gazte eta helduentzat / Juvenil - Adultos



CORAL ARITZA DE AIBAR-OIBAR

Aritza Abesbatza 1974an sortu zen eta 1989z gero jardunean aritu da etengabe. Aritza Abesbatzaren emanaldiak biderkatu egin dira azken urteotan, eta polifonia eta folklorea biltzen dituen askotariko errepertorio goresgarria osatu ahal izan du.

La Coral Aritza fue creada en 1974, y desde 1989 está en activa de forma continuada. La actividad musical de la Coral Aritza, se ha multiplicado en los

últimos años, ha conseguido completar un estimable y variado repertorio de polifonía y folklore.

DOAKO SARRERA - ENTRADA LIBRE



Sare sozialetan jarraitu
Síguenos en las redes sociales

www.ansoain.es



ANTZERKIA - TEATRO

IGANDEA 6^{DO} DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (60 min)

PASADAS LAS 4

5 urtetik gorakoentzat - A partir de 5 años



ROUTE 6.6

Estreinaldia!!!

Antzerki eta musika ikuskizun honetan, Luisak eta Marisak gitarra elektriko berezi bat jaso dute herentzian, Liberto osabak gitarrista aske eta esna, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera ibili zuen gitarra. Egunkari bat balitz bezala, soka bakoitzak esperientzia zoragarria du, protagonistek biziberritu ahal izango dutena eta, horrela, hainbat tokira bidaiatu eta istorio ederrak aurkitu: 6 soka, 6 ipuin. "Photocall" gitarra elektrikoarekin / "Errimen postontzia" Maniarik gabeko errimen ontzia / Ez ahaztu zure look rockeroena ekartzea!

iiiEstreno!!!

En este espectáculo músico-teatral, Luisa y Marisa reciben en herencia una guitarra eléctrica muy especial con la que su tío Liberto, un guitarrista libre y despierto, ha recorrido el mundo de Norte a Sur y de Este a Oeste. Como si de un diario se tratara, cada cuerda contiene una experiencia maravillosa que las protagonistas podrán revivir y, de esta manera, viajar a diferentes lugares y descubrir hermosas historias: 6 cuerdas, 6 cuentos. "Photocall" con guitarra eléctrica / "El buzón de la rima" para poesías sin manías / ¡No olvides traer tu look más rockero!

PRECIO / PREZIOA 3,80 €



HILEAN BEHINGO IRTEERA - SALIDA MENSUAL

LARUNBATA 12^S SÁBADO

Lapurbide plaza - Plaza Lapurbide
12:00 h.

Familiarentzat - Familiar



ANTSOAINEN KANTUZ

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztientzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarte Etxean.

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

UMOREA ETA AHOTSAK (EUSKARAZ) - HUMOR Y VOCES A CAPELLA (EN EUSKERA)

IGANDEA 13^{DO} DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (60 min)

DEMODE QUARTET

5 urtetik gorakoentzat - A partir de 5 años



EPA TXIKI!

"Epa Txiki!" es un espectáculo musical con divertidos textos, coreografías, humor y versiones "locas" de los clásicos euskaldunes de todos los tiempos. Este espectáculo está dirigido a un público infantil, pero con más de un guiño cómplice con los más mayores. Estos cuatro excéntricos cómicos intentarán demostrar su teoría: "Todas los estilos musicales del mundo tienen su origen en el folklore vasco". ¡Qué miedo!

"Epa Txiki!" musika-ikuskizuna testu, koreografia eta umore dibertigarriak betea dago, bai eta garai orotako euskal kantu klasiko guztietako bertzio "eraz" ere. Ikuskizuna haurrendako da, baina keinu konplize bat baino gehiago egiten die helduei. Lau komiko bitxi horiek beren teoria frogatzen saiatuko dira: "Munduko musika-estilo guztiek euskal folklorean dute jatorria". Hau beldurra!

PRECIO / PREZIOA 3,80 €



ANTZERKIA - TEATRO

OSTIRALA **25** VIERNESAntsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
21:00 h. (70 min)

CANCAMISA TEATRO

Gazte eta helduentzat / Juvenil - adultos

**RAMPER**

Ramper 20 eta 50. hamarkadako Espainian pailazo ospetsua izan zen. Beran oinarritutako marrazki biziduna izan zuen, bere ahotsarekin grabatutako diskak, film bat eta anis-botilak eta coñac-ak bere izenarekin. Baina gerra Zibilak erdibitu egin zuen bere karrera, garai hartako Espainia banatuarekin borrokatu behar izan baitzuen.

Ramper fue un famoso payaso en la España de los años 20 y 50, que llegó a tener un dibujo animado basado en él, discos grabados con su voz, una película y botellas de anís y coñac con su nombre. Pero la Guerra Civil rompió su carrera por la mitad teniendo que lidiar con la España dividida de aquella época.



PRECIO / PREZIOA 6,50 €

HAURRENTZAKO ZINEMA - CINE INFANTIL

IGANDEA **27** DOMINGOAntsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (30 min)

2 urtetik gorakoentzat - A partir de 2 años

**ZOG, DRAGONES Y HEROÍNAS**

Zog herensuge bat da, eta eskolara ikastera doa: hegan egitera, ahotik sua botatzera eta printzesak bahitzera joatera. Ez zaio oso ondo ematen, baina oztupoak gainditzeko ari da printzesa baten laguntasunari esker, mundua haiengandik espero duena izatera behartuta ez daudela ulertzen laguntzen diona. Istorio bat, neska ausart eta irudimentsuen protagonista diren lau film laburrekin batera.

Zog es un dragón que va a la escuela a aprender a volar, a escupir fuego por la boca y a raptar princesas. No se le da muy bien, pero va superando los obstáculos gracias a la amistad de una princesa que le ayuda y le hace entender que no están obligados a ser lo que el mundo espera de ellos. Una historia acompañada de cuatro cortos protagonizados por niñas valientes e imaginativas.




PRECIO / PREZIOA 3,80 €

IPIUIN-KONTALARIA EUSKARAZ - CUENTA CUENTOS EN EUSKERA

ASTEAZKENA **17** MIÉRCOLESLiburutegia
Biblioteca

Haurrentzat baizik ez - Exclusivamente para niños/as

JAPONIARA BIRJIÑE ALBIRADOAKO SARRERA
ENTRADA LIBRE17:30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat
18:15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat17:30 De 3 a 5 años
18:15 De 6 a 12 años

INFORMAZIO INTERESGARRIA - INFORMACION DE INTERÉS

SARREREN SALMENTA - VENTA DE ENTRADAS**ANTZOKIKO LEIHATILAN.**

Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012).

Sarrerak antzokiko leihatilan hartuko dira ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

INTERNET www.ansoain.es **SARREREN SALMENTA.**

Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora sartu zaitezke.

Ex da aldaketarik edo itzultzerik onartzen. Soilik ikuskizuna bertan behera utziz gero.**TAQUILLA DEL TEATRO.**

Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo.

TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012).

Las entradas se recogerán en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo del espectáculo.

INTERNET www.ansoain.es **VENTA DE ENTRADAS.**

Con el justificante de compra por internet puedes acceder directamente a la sala.

No se admiten cambios ni devoluciones, excepto por cancelación de un espectáculo.**ONARRIZKO ARAUAK - NORMAS BÁSICAS**

Aretoaren edukieragatik pertsona guztiek eskuratu beharko dute sarrera aretora sartzeko. Aretora sartzen diren pertsona guztiek sarrera edo erosketaren ordainagiria aurkeztu beharko dute.

Aretora aulkitxoekin sartzeko debekatua dago. Behin ikuskizuna hasita, ezinen da aretora sartu. Sakelako telefonoak deskonektatzea eskatzen da, bai eta mota guztietako gailu elektronikoak zein seinale akustikoak ere.

Aretoan edozein motatako jakiak edo edariak kontsumitzea debekatua dago. Konpainiaren edo antolakuntzaren baimena izan gabe, ikuskizunaren argazkiak edo grabazioak egitea debekatua dago.

Antsoaingo Udalaren Kultura Zerbitzuak, egoerak eskatzen badu, datak, orduak eta programatutako ikuskizunak alda ditzake.

Por cuestiones de aforo todas las personas deberán obtener una entrada para el acceso a la sala. Todas las personas que entran a la sala deberán presentar la entrada o el justificante de compra correspondiente.

No está permitido acceder a la sala con silleas. Una vez comenzado el espectáculo no será posible el acceso a la sala.

Se ruega desconectar los teléfonos móviles y todo tipo de dispositivos electrónicos y señales acústicas al acceder a la sala.

No está permitido consumir ningún tipo de alimento o bebida en la sala.

No está permitido grabar o fotografiar los espectáculos sin autorización expresa de la compañía o de la organización.

Si las circunstancias lo exigen, el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Ansoáin podrá alterar las fechas, los horarios y los espectáculos programados.




Inork entzumen tresna erabili nahi badu Antzokian ematen diren antzezpenerako, erreserba egin beharko du Kultura Zerbitzura deituta (948 13 34 10), cultura@ansoain.es helbidera idatzita, edo, antzezpeneraren egunean bertan, antzokiko langileei eskatuta.

Las personas que deseen utilizar alguno de los equipos de audición en las representaciones programadas en el Teatro, lo podrán reservar llamando por teléfono al servicio de cultura (948 13 34 10), escribiendo a cultura@ansoain.es o solicitarlo al personal de sala el mismo día de la función.

idaki

Zure kirol guztia



Todo tu deporte



948 14 07 82
www.idaki.org



ANTSOAINO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN